

1986-2016:

Soberaniaren alde, #NATOez



Floren Aoiz / Maite Ubiria



Maite Ubiria



Floren Aoiz



Iñaki Barcena



Itziar Aizpurua



Txaro Buñuel




Iñaki Ruiz de Pinedo

Ikusi bideoak hemen edo www.iratzar.eus atarian.



www.iratzar.eus

Iratzar Fundazioa
Zuatzu Enpresa parkea
Ulia eraikina 1,1.
20018 Donostia (Euskal Herria)
www.iratzar.eus
fundazioa@iratzar.net



1986-2016: **Soberaniaren alde,** **NATO ez**

Aurkibidea

1. NATOren kontra eginda, Euskal Herriak irabazi: zentzu komunaren lehiaren garaipena.....**4**
2. Herriak eta herritarrek aintzat hartuko dituen
mundu poloanitzak dugulako xede: NATOri ez !**8**

1

NATOn kontra eginda, Euskal Herriak irabazi: zentzu komunaren lehiaren garaipena



Floren Aoiz
Iratzar Fundazioko
zuzendaria

1986ko martxoaren 12an Euskal Herriak ezetz borobila eman zion NATO erakunde kriminalari. Kataluniak eta Kanariar Irlek ere ezetza eman bazuten ere, estatu mailan baiezkoa izan zen garailea, eta aurretik inposatuko erabakia legitimatzeko erabili zuen erreferendumaren emaitza PSOEn gobernuak.

Euskal Herriaren ezetzak izugarritzko garrantzia izan zuen. Oroitu beharra dago alderdi gehienek NATOn aldeko apustua egin zutela. Batzuk, EAJ esaterako, erdi ezkutuan ibili ziren, herritarren iritzien beldur. Izan ere, EAJk ofizialki botoa emateko askatasuna eman zien beren kideei, baina Arzalluzek, Ardanzak eta beste batzuek jendaurrean iragarri zuten baiezkotza emanen zutela. Gauzak horrela, emaitzek argi utzi zuten alderdien sistemaren arabeko argazkia eta herriaren borondate zehatzarena oso ezberdinak zirela. Honek kolokan jartzen zuen Franco hil ondoko erreformaren zilegitasuna alderdien botoetan sustengatu nahi zuen narratiba, eta, beraz, kezka handia ekarri zuen erreformaren aldekoengan.

Euskal Herrian, bi izan ziren ezezkoaren aldeko herri ekimen garrantzitsuenak, euskal soberaniaren defentsaz lotutako Euskal Manifestua batetik eta ezkerreko eta herri mugimenduetako hainbat talde eta pertsonak biltzen zituen NATOn kontrako Mobida bestetik. Esanguratsuki, bi eragileetako pertsona erreferentzialak lanean daude elkarrekin gaur egun EH Bildun eta beste hainbat esparrutan. Hirugarren eragilea Pakea eta Desarmearen aldeko Kolektiboa izan zen. Beste talde asko ere oso aktibo izan ziren kanpainan; Jarrai, ikasle eta langile mugimendua, feministak, ekologistak...

Oro har, lehia eta emaitzak ezker abertzalearen garaipen gisa irakurri ziren. Esanahi politiko argia hartu zuen, testuinguru hartan, ezezkoaren garaipena, Hego Euskal Herriko lau herrialdeetan gertatu baizen. Aintzat hartu behar da Bardeatako Tiro Poligonoaren salaketak leku berezia izan zuela mobilizazio eta sensibilizazio lan horietan eta honek eskala nazionala indartu zuela, garai hartan eragile erreformistak indar oroz bultzatzen ari ziren lurralde zatiketaren aurrean.

Edonola ere, hura ez zen izan soilik ezker abertzalearen eraginaren fruitua: huts eginen genuke termino simple horietan aztertuz gero. 1986an arrakasta izan zuena artikulazio hegemonikorako hautua izan zen. Artikulazio horretan, soberania, desarmea, antimilitarismoa, gehiengoaren bizi eta lan baldintzak lerrotu ziren alde batean, bestean elitismoa, militarismoa, krisia, soberaniaren ukapena, estatu terro-



rismoa eta gero eta haserre gehiago pizten zuen erregimena irudikatzen zirelarik. Artikulazio horretan "NATOr e" leloak indarrak bildu zituen, beti ere batzueendako eta besteendako ezezeko horrek esanahi ezberdinak zituelarik.

Ideen borrokan ezezkoa nagusitu zen baieztekoaren gainetik eta honek eragin zuzena izan zuen emaitzetan, noiz eta Franco hil ondotiko erreformaren esparruan kontraesanak eta arazoak biderkatzen ziren unean. Polarizazio sutsua gertatu zen eta eztabaida oso bizia izan zen, jendartearen gehiengoak posizioa hartzeko beharra ikusi zuelarik.

Finean, emaitzek islatu zuten diktadura eta erreforma politikoaren kontrako euskal matxinadaren sedimentazio indartsua. Borroka urteek hondar sakon eta indartsua utzi zuten Euskal Herrian. Bestela esanda, argi zegoen erreformak, materialki inposatu arren, arazo handiak zituela jendartearen atxikimena biltzea lortzeko. Euskal jendarteak beste zerbait espero eta nahi zuen eta haustura baztertuz inposatu zen erreformaren bideak izugarritzko zapuzketa ekarri zuen.

Franco hil ondotiko erreformaren kudeatzaileendako lehen mailako erronka zen nazioarteko sare kapitalista-atlantistetan uztartzea. Europar Komunitatea batetik eta NATO bestetik uztarketa horren euskarri nagusiak ziren, helburua espainiar estatuaren inperialismo kapitalistaren geoestrategia mantentzea zelarik. PSOEk, garai batean, NATOren kontrako zela zioen (OTAN, de entrada no zen beren leloa), baina gobernura iritsita, jarrera aldatu eta uztarketaren aldeko urratsak eman zituen. Erreferendumaren helburua tentsioak ahuldu eta uztarketa legitimatuz erreforma indartzea zen.

Gogoratu beharra dago hausturaren aldeko beste eragileak indargabeturik, euskal matxinada bilakatu zela erreformaren arazo nagusia. PSOEk, 1982an Madrilgo Gobernura iritsita, euskal jendartearen borroka eta askatasun grina ezabatzeko estrategia gogortu eta zabaldu zuen, 1986rako 25 hildako baino gehiago eragin zituen GAL estatu terrorista taldea bultzatuz, besteak beste (tortura, ZEN Plana...)

Bestalde, PSOEk izugarritzko berregituraketa bultzatu zuen maila sozio-ekonomikoan, bereziki esparru industrialean, milaka lagun lan baldintzak okertzeaz gain lanpostu deuseztapen erraldoia ekarri zuena, hots. Beraz, 1986an hilda zegoen herritar askorengan PSOE eraldatzailearen ilusioa, nabarmena baitzen erabat lerrotzen zela kapitalarekin lanaren aurka. Neoliberalismoaren laborategi erraldoia zen Europar Komunitatearen eraikuntzak hala eskatzen zion espainiar estatuari, eta PSOE indar oroz aritu zen aginduak bete nahian.

Testuinguru horretan kokatu behar dira NATOren inguruko eztabaida eta erreferendumaren emaitzak. Eta testuinguru horri erreparatu behar diogu gertaera horiek gogora ekartzean.

Erreferendumaren emaitzak ikusita, espainiar estatuak ondorioztatu zuen indar gehiago egin behar zuela ezker abertzalea eta oro har hausturaren aldeko euskal eragileak indargabetzeko. EAJk, bere aldetik, beldurrez ikusi zuen gertatutakoa, bere nagusitasun ideologikoa kolokan baitzegoen, are gehiago Earen zatiketa aurrera zihoalarik. Argi zegoen, beraz, erreformak ofentsiba areagotu behar zuela, emaitza horiek islatzen zuten atxikimen krisia alternatiba bideragarrietan gorpuztu ez zedin.

Euskal Herriak emandako ezetza ez zen ezer hutsean gelditu eta intsumisioaren matxinada berrirako ongarri bilakatu zen, oro har, soberaniaren defentsa eta hausturaren zerumuga indartu zituelarik. Ordu-tik, nolabait, NATOren belizismoaren errefusa euskal zentzu komunean erroto da.

NATOr emandako ezetzak, garai hartako beste mobilizazioek bezala, bultzada handia eman zioten ezker abertzaleari, bereziki Herri Batasunari. Erreferendumaren ondotik hainbat hauteskunde hitzordu etorri ziren eta ezker abertzaleak emaitza historikoak lortu zituen, EAJk kolpe ederrak hartu zituela-



rik. Gerora, Algerreko elkarriketak etorriko ziren, metatutako indarren hedapena agerian utziz, baina dakigunez, porrot egin zuen saioak eta estatuak lortu zuen maila handi batean faktura ezker abertzaleak ordaintzea.

Lehen aipatu bezala, militarismo atlantistak arazo handiak izan ditu 1986tik ordudanik Euskal Herrian jendearen babesa lortzeko. Nabarmena da gaur egun ere borroka horiek utzitako uza. Ideia eta kultura kolektiboaren esparruan leku ederra dauka militarismoaren kontrako borrokak, zorionez.

Erreferendum horretatik 30 urte pasa direlarik, nabarmena da NATOri ezetza emateko arrazoiak biderkatu direla. Inperialismo neoliberal atlantistaren tresna erasokorra da NATO erakundea, herriak suntsitu eta gutxiengoen interesak ezartzeko bitarteko kriminala, munduko bazter askotan ikusi eta ikusten ari denez.

Gerla hotza deitutako polarizazio eredu gaituta, NATOk aipatzen zuen justifikazioa galdu bazuen ere, segituan bilatu zituen beste bi. Lehena, "terrorismoaren kontrako borroka", terrorismoa haien nagusitasunaren arrisku gisa hartzen duten edozer delarik. Bigarrena, humanitarismoa, izan ere, gaur egun, gerla inperialistak ekimen humanitario gisa aurkeztzen dira. Beste estatuetan eskua sartzea, hortaz, herritarren onerako operazio moduan saltzen da, atzean dagoena ezkutatu nahian.

Nabarmena da NATO gerlarako egitura dela, Ukrainian eta beste leku askotan gatazka zabalen arriskuak sortu eta areagotzen dituen. NATOk protagonismo handia izan du, esaterako, Afrikan eta Asian piztutako gerletan, nabarmenak direlarik, bestalde, armen industrikiko loturak. NATO interes ekonomiko eta politiko estrategikoen arabera antolatuta dago eta gaur egun inperialismoaren berregituraketaren euskarri nagusietako bat da, nazioarteko komertzio itun gisa agertzen diren uztarketa planen (TTIP, TISA...) osagarria.

Gure munduaren polo-aniztasunari erantzun nahi dio NATOk gaur egun, subjektu autonomoen sorrera edota indartzea galaraziz. Finean, menpekotasuna bermatzeko bitartekoa da, inperialismoaren araberrako harremanak ezartzeko indar armatua.

Gauzak horrela, 1986an hauteskunde kutxetan adierazitako errefusa baieztatu beharra dugu 2016an. Arrazoiak ugariak dira, besteak beste, 30 urte iraganda, Bardeatako Tiro Poligonoa, herritarren arbuio eta mobilizazioen gainetik, espainiar armadaren eskuetan eta NATOren zerbitzura dagoena.

Bada, beraz, NATOri emandako ezetza berrindartzeko beharra. Baita aukera ere, urteurrenek parada eskaintzen baitigute eztabaida berpiztu, militarismoaren kontrako jarrera berrindartu eta mobilizazio haren izpiritua gogora ekartzeko. Ezin gara orduko garaipenaren oroimenean gelditu, alta. Gaur egungo egoera eta erronken araberrako mezu eta jarduerak behar ditugu, borroka zahar honetarako bide berriak bilatuz.

Militarismo eta belizismoaren kontrako borroka berritzeko erronka honetan NATOren kontra erreferendum, Intsumisioaren gatazka eta Bardeatako Tiro Poligonoa erreferentzia nagusiak izan daitezke, baina zerumuga argia ezarri beharra dago: Euskal Herriaren desmilitarizazio osoa, hau da, eromen militaristatik kanpoko Euskal Herria.

Euskal Herriak erabaki behar du zer nolako harremana izan nahi duen beste herriekin, eta bere burua eratu behar du kanpoko menperatze saiorik gabe, eta beste inor menperatzeko saioen konplize izan gabe. Honek halaber beharrez eskatzen du gure lurraldearen desmilitarizazio osoa eta egitura, narratiba eta jardura militaristekiko apurketa erabatekoa.

Eta, neoliberalismo inperialista eta belizistaren aurrean, 1986an gure herriak egin zuen hautua aurre-lari gisa agertzen da, nabarmena baita burujabetzea bestelako mundurako oinarria dela. Soberaniaren defentsa ezinezko euskarria da aske izan nahi duten herri ororendako. Finean, Euskal Herriak, 1986ko martxoaren 12an burujabetzeko urrats handia eman zuen. Ez zen aldarrikapen hutsa, bere buruaren jabe izan zelako herria erabakia hartuz, gerora erabaki hura errespetatu ez bada ere.

Herri gisa erantzun zion Euskal Herriari orduko erronkari, eta orain ere, herri gisa erantzun behar diegu neoliberalismoaren erasoei, geure bidea hartuz eta herriaren hitza errespetaraziz. 1986an erakutsi genuen indarrak biltzeko eta batera aritzeko gaitasuna. Orduan bezala, burujabetasunaren defentsa funtsezkoa da gaur egun ere, jendarte aldaketa, berdintasuna eta demokrazia biltzen baititu, herritar libreak izateko herri librea behar baitugu.



2

Herriak eta herritarrak aintzat hartuko dituen mundu poloanitzza dugulako xede: NATOri ez !



Maite Ubiria
Sortuko Kontseilu Nazionaleko
nazioarteko arduraduna

Ipar Atlantikoko Itunaren Erakundea (NATO) 1949ko apirilaren 4an eratu zen. Lehenengo sinatzailerik hala aitortuta, Washingtoneko akordioa ardatz hartu zuen erakunde militarra helburu bikoitzarekin sortu zen. Alde batetik, Sobiet Batasuna ordezkatzeko ereduaren “zabaltze prozesuak sor zezakeen arriskuari aurre egitea” zuen xede; bestetik, “Alemania bere mugen baitan” atxikitzea.

Hasting Lionel, NATOk idazkari nagusi britaniarrak emandako azalpenari so eginez gero, hirugarren behar bat asetzeko ere balio behar zuen tratatuak. “Estatubatuarrak etxean, Sobietarrak kanpoan eta alemanak kontrolpean” izatea, hortarako sortu baitzen, bere esatenan, erakunde atlantista. Hain zuzen ere, 1954az geroztik -Parisko Itunari esker- bere Armada berrantolatzeak aukera bereganatu zuen Alemaniak.

Handik urtebetera soilik elkarri laguntzeko akordioa erdietsi zuten Sobietar Errepublika Sozialisten Batasunak (SES) eta Ekialdeko herrialdek, Varsoviako Ituna bezala ezagutzen denaren bidez.

Testuinguru horretan, bestalde, 1957an Europako Komunitate Ekonomikoa sortu zen. Polo ekonomiko berria iragartzen zuen jaiotza hori bere zerumuga zabaltzeko aukera bezala irudikatu zuen NATOk. Hain zuzen ere, blokeen arteko lehia militarretik harago, Erromako Itunak babesten zuen aliantza ekonomikoaren babesle edo zaindaria gisa jarduteko.

Merkatu librearen aldeko dinamika kontinentalaren zaindaria gisa agertuz, NATOk bere biziraupeneko txartela erosi zuen, neurri handi batean. Norgehiagoka militarretik harago, Europako geopolitikaren aktore nagusia izateko nahia era ezin argiagoan agertuz.

1989an, Berlingo Harresia desagertu ondoren, Varsoviako Itunaren inguruan sorturiko aliantza goitik behera erori zen, Europako berrantolaketa geostrategikoari bide emanez.



NATOK, logikak agintzen zuenez, Sobiet Batasunaren “mehatxua” desagerturik, bere agurra eman behar zuen. Alta, lehenagotik bere buruari emandako funtzio berria – Europako integrazio prozesuaren Anai Handia izatea- betetzeko ibilbide osoa jarri zuen mahai-gainean.

90. hamarkadan, batzutan era lasaian bestetan gerraren poderioz, European martxan jarri zen antolaketa berrian esku-hartze zuzena izan zuen NATOK, garaian sobietar eremuan kokaturiko herrialdeetara erakartzeko dinamika zabala martxan jarritz. Hala 1994az geroztik, bakearen aldeko alde biko akordioak (PPP) sustatu zituen antzineko Varsoviako Ituneko sinatzaileen eta Aliantza artean, bere eragiteko gunea zabalduz. Ekialdeko Europako herrialdeen arteko elkarlan eremuak ahultzeko trantsizio tresnak sortu zituen, finean.

Washingtonetik zetorren ofentsibarekin batera, Bruselak bere esparru politiko-ekonomikoa sendotzeko urratsak eman zituen. Integrazioa bizkortzeko hautua oso parametro atlantista-zaleen arabera garatu zen. Europako Batasunaren zabaltze prozesua, neurri handi batean, hautu horren adierazle da.

Horrek ez du esan nahi atlantismoaren aldeko erabakia formala eta aho-batekoa hartu zenik. Golkoko lehenengo gerraren garaian, Europak bere defentsa ereduak -kanpoko politika autonomoa garatuz- bultzatu behar zuela eta NATO ren nagusitasuna aldarrikatzen zutenen talka irudikatu zen. Frantziako gobernuak bizi zuen krisiak horrela erakutsi zuen. Jean-Pierre Chèvenement-ek bere dimisioa aurkeztu zuen 1991ko urtarrilean, Irak erasotzeko antolatu zen nazioarteko aliantza militarra NATOren aterkiaren pean jardutearekin ados ez zegoelako.

Golkoko basamortuaren areak estali zuen, neurri handi batean, Europak bere defentsa beregain hartzeko asmoa. Behin-betiko kapitulazioa handik gutxira Maastrich-eko Itunaren eskutik etorri zelarik.

Garaian ezker abertzaleak iragarri zuen bezala, gehienetan herritarren oniritzirik gabe onartu zen Maastrich-eko Itunak (1993) guztiz baldintzatu zuen Europako integrazioaren norabidea. Eremu oso bestelakoetan oinarritzeko eskubide eta askatasunen murrizketak ekartzeaz gain, burujabetzaren galera larria ekarri zuen tratatu berriak.

Gerra Hotza irabazi ondoren, blokeen osteko eszena geopolitikoan erabateko hegemonia sustatzeko bidean NATO ezinbesteko tresna bilakatu zen. Ekialdeko herrialdeetara tentakuluak zabaltzeaz gain, Mendebaldean sekulako sedukzio ofentsiba garatu zuen Aliantzak. Bere posizio berria indartze aldera bi helburu ezarri zizkion bere buruari: eskuinaren eremuan posizio soberanistak (europarrak) ahultzea. Horretarako Frantzia berriz ere laborategia bilakatu zen: zentro-eskuin hexagonalak hamarkada batez burutu zuen bidaiak – lerrokatze europarrean kokatzetik posizio atlantistak besarkatzera- ondo irudikatzen du estrategia horren arrakasta.

Diplomazia atlantistak bazuen beste garaikur preziatuagoa, ordea. Europako Ipar Herrialdeak ispilu, Alemanian diruz hornitzen zen Europako hegoaldeko sozialdemokrazia gaztea erakartzea, hain zuzen ere.

Horri begira, Frankismoa aliatu izan zuen aliantza militarrek hil ala biziko frogatzat hartu zuen Espainian, Felipe Gonzalez-en gobernuak, NATOr buruz antolatu zuen erreferenduma.

Europako Batasunean bere tokia egiteko -bide batez europar sozioak eta bereziki Frantzia elkartasunetik ekintzetara eramanez Euskal Herrian burutzen zuen “terrorismoaren aurkako guda”ri begira- NATOn sartzea, bidesari onargarria zela deliberatu zuen PSOEK.

Behin erabakia hartuta, erreferenduma helburu hori betetzeko tresna bilakatu zuen espainiar sozialdemokraziak. Kontsultarako hautatu zen galdera sorta aldrebesak, NATOren benetako izaera eta helburuak ezkutatzeko propaganda lanak, eta mezu politiko argi-ilunen erabilpenak sekulako pisua hartu zuten 1986ko martxoaren 12an burutu zen herri galdeketa baldintzatzeko orduan. Jakina denez, soilik Kanariar Irletan, Katalunian eta Hego Euskal Herrian herri mugimenduek eta ezkerreko eragileek lortu zuten atlantiar itsasgora gelditzea.

NATOrri ezetz esanez, menpekotasunean oinarrituriko harreman ereduaren aurrean erabaki burujabea hartu zuen Euskal Herriak; bide batez, atlantismoaren kabalkadaren poderioz garai hartan amets soilak zirudien mundu poloanitzaren eraikuntzari ekarpen sume bezain garrantzitsua eginez.

Espainiako Gobernu sozialdemokratak Europako Batasunean estatus gregario bat izatearen truke -ortodoxia neoliberalaren jarraitzaile akritikoaz jardutearekin batera- NATOren bulegotik pasatzeko eginiko hautuak ez zion ez aukera neutro ezta pertsonalizatutako eskaitza bati erantzuten.

PSOEk gurutzatu zuen zubia, hala erakunde politiko-militarrak ondoko hamarkadetan lortu zuen sendotze eta zabaltze prozesuari mesede handia eginez. Hala, aurrerantzean EBko klubean izateko abantzu sarbide bakarra bilakatu zen aitzinetik erakunde politiko-militarrekin bat egitea.

Europako Batasunean aulkia lortzeko ez zen nahitaezkoa Bruselak ezarritako badintza guztiak betetzea. Azkeneko krisi sozioekonomikoak era mingots batez erakutsi duenez, egiturazko erreformen eremuan, eta zer esanik ez, giza eskubideen alorrean, partaide berriek "etxeko lan" guztiak bete ez arren, salbuespen salbuespen NATOren onespina lortzeak neurri handi batean sarrera baimen gisara funtzionatu du haietako gehienentzat.

Bi erakunde zerrenda-kide berrien zerrenda goitik begiratzea aski da ontzi komunikatuen teoria baieztatzeko. Berlingo Harresia erori ondoren -eta behin PPP-en bidez eginiko trantsizio epea gaindituta-, ondoko hamarkadan zentro eta ekialdeko herrialdeak NATOren baitan sartu ziren bata bestearen ondoren. 1999an gaur gaurkoz Europako Batasuneko kide diren Txekiar Errepublika, Hungaria eta Polonia sartu ziren atlantiar aliantzan. 2004an Bulgaria, Baltikoko errepublikak (Letonia, Lituania, Estonia), Rumania, Eslovenia eta Eslovakiaren txanda izan zen. Azkenik, 2009. ean Albaniak eman zuen izena "haizetako arrosa"ren klubean. Azkeneko hau da NATOko kide izanik EBko partaide izateko "irabazle txartela" eskuratu ez duen herrialderik bakarretakoa.

Egun 28 herrialdek partekatzen dituzte Washingtoneko itunak zehazten dituen "baloreak" eta bereziki "Ipar Atlantikoko eremuan segurtasuna bermatzeko ardura". Kroazia 2013an Bruselako klubean sartu ondoren, beste hainbeste kidek -28- osatzen dute Europako Batasuna. Bi erakundeen arteko ibilbide paraleloak baieztatzeraz dator, oraingoan ere, aritmetika geopolitikoa.

NATOn zein EBren baitan izateko molde ezberdinak izanik, bi erakundeetako partaideek egiten dituzten hautu guztiak ez datoz bat. 1989az geroztik NATOk hamar bat kanpainia militar garatu ditu Europan ez ezik munduko beste hainbat eskualdeetan. Operazio horiek guztiek ez dute makularik gabeko adostasuna adierazi europar eta atlantistar sozioen artean. Estatu Batuek aliantzaren gainean -bestelako nazioarteko erakundeetan bezala: NBE, esaterako- ezarritako domeinuak behin baino gehiagotan ezadostasunak eta ika-mikak eragin ditu.

Washington bere interesak lehenetsi dituen heinean, NATOko kanpainia horiek guztiek bere nagusitasuna sendotzeko erabiliak izan dira -Somaliako kanpainia datu adierazgarria izan zen-.



Jarduera horrek sozioen arteko talkak ekarri ditu, interes orokorrak berdinak izan arren, inperialismo klasikoaren garaian bezala globalizazio kapitalistaren aroan ere aktore ezberdinek jarduten dutelako, norberak bereko onurak bilatzen dituzterik. Inperialismo 3.0 garaian, gurutzatutako interesen arteko sarearen baitan harrapatuta geratu da neurri handi batean soviatar blokearen erorketarekin batera erein zen ordena berriaren paradigma. Demokrazia eta bakea sustatzeko promesak gezurtatzen dituzte nazioarteko bazter ezberdinetatik heltzen diren gatazka hotsek.

Anabasa, egorkotasun eza, aliantzen etengabeko mudantza, bertako eta kanpoko aktoreen arteko harreman gatazkatsua, baliabideen ustiapen arrazionala, interes eta erronka globalak kudeatzeko ezintasunak... Guda Hotzaren garaileak garatu duen mugarik gabeko esku-hartzeak, besteak beste NATOren laguntzaz, herrialdeen suntsipena eta gizarte zatiketak aregotu dituzte.

Iraken, eta aldeztu aurretik Afganistanen, "aliatuek" burututako erasoaldi militarrek azken urteotan Libia eta Siriako biztanleriak pairatzen duen giza hondamendiaren aurrekari zehatzak dira. Lehen-gaien gaineko kontrola eta nagusitasun geopolitikoa helburu duten lehia horren ondorio latzak agerian geratzen dira. Hamaika mila hildako eta etengabeko errefuxiatuen ihesaldia eragin ditu Siriako gerrak.

Zeharkako esku-hartzeak egundoko suntsipena eragin ostean, NATOren interbertzio zehatza eskatzen duten ahotsak ez dira falta. Ezin da inolaz ere baztertu gerratik ihesean Europara datorren jende multzoak gizarte europarrean eragin duen konmozioa aitzakiatzat hartua, Aliantzak errefuxiatuen krisiari "interbide militarra" emateko urratsa ematea. Horra hor lurreko interbertzioari begira antolatutako propaganda eta prestaketa militarra.

Trident Junture maniobra, NATOko kideen eta bere aliatuen (Arabia Saudi kasu) artean arma sal-erosketak izan duen hazkundeak, besteak beste, esku-hartze inperialistaren bukaeratik urrun gaudela pentsatzeko arrazoiak ematen dizkigute. Errusiako mugetaraino – Krimea eta Ukrainiako auziak- zabaldu den erakundeak mehatxu bezala irudikatzen du Moskuko esku-hartzea Siriako gatazka, Ekialde Hurbilerako bere planak zapuztu dituelako.

Gauzak horrela, duela 30 urte Euskal Herriak eginiko hautuak gaurkotatzen osoa dauka. Herrien burujabetza eta pertsonen duintasuna lehen lehen jarriko dituen bestelako munduaren alde indarrak bildu eta estrategia berriak sustatzea ezinbestekoa da, atzo bezala gaur ere, NATOk ordezkaz duen desoreka globalaren eredu gaitzizko.

Eskubide eta askatasun unibertsalak –herriak zein norbanakoak babesten dituztenak-, ardatz bezala hartuko dituen bestelako nazioarteko harreman ereduaren alde lan egitea, 1986an bezala, lehen-tasuna da gaur gaurkoz euskal ezker independentistarentzat. Hori izan da iraganeko eta izango da aurrerantzean ere gure jardueraren ipar-orratza.

Bardeetatik NATO kanpora. Gerrarik ez.

